Errenteriako Udala
Zk./ Nº 2024/1
Data / Fecha 2024/02/01
AKTA / ACTA

**Espediente zk./**Nº expediente**:** 2024IUBA0001
**Gaia/**Asunto**:** 2024/01/30 Udalbatzaren ohiko Osoko Bilkura/Sesión ordinaria de Pleno de la Corporación de fecha 30/01/2024

**Udalbatzak 2024ko urtarrilaren 30ean eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.**

Errenteriako Udaletxean, 2024ko urtarrilaren 30eko 18:30ak zirela, lehenengo deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU), ondorengo zinegotziak elkartu dira:

***ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU***

- Alazne KORTA ZULAIKA
- Leire MAZIZIOR EGILEGOR
- Eneko DEL AMO JIMÉNEZ
- Bernar LEMOS TABERNA
- Itsaso CRUZ ETXEBERRIA
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Aitor ZORZANO MORRONDO
- Iñaki QUERALT COIRA

***SocialistasVascos-Euskal Sozialistak***

- Isaac PALENCIA CABALLERO
- Montserrat LUIS CANO
- Iñaki RUIZ ALONSO
- María Almudena DE LA TORRE FERNANDEZ
- José Alberto MUÑAGORRI BERDASCO
- Yosleidy Cristina FERRERA CEDEÑO

***EAJ-PNV***

**Acta de la sesión ordinaria de Pleno de la Corporacion celebrada el día 30 de enero de 2024.**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 18:30 horas del día 30 de enero de 2024, se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de la alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU), las y los siguientes concejalas y concejales:

***ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU***

- Alazne KORTA ZULAIKA
- Leire MAZIZIOR EGILEGOR
- Eneko DEL AMO JIMÉNEZ
- Bernar LEMOS TABERNA
- Itsaso CRUZ ETXEBERRIA
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Aitor ZORZANO MORRONDO
- Iñaki QUERALT COIRA

***Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak***

- Isaac PALENCIA CABALLERO
- Montserrat LUIS CANO
- Iñaki RUIZ ALONSO
- María Almudena DE LA TORRE FERNANDEZ
- José Alberto MUÑAGORRI BERDASCO
- Yosleidy Cristina FERRERA CEDEÑO

***EAJ-PNV***

ESKU883fa516-e3bd-4943-80d8-3b5e0f0ce35a

- Elixabete MURUA MINDEGUIA

- Jaione FRANCO INSAUSTI

- Luis María OYARBIDE ARIZMENDI

***ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde***

- Yolanda MARTIN MARCOS

- Maite GARTZIA ONTIVEROS

***PP ERRENTERIA***

- Antonio José VICENTE ZUBICOA

Bertan dago, egintza fedatzeko, Ainhoa Esnaola Zubeldia Idazkari orokorra.

Era berean, bertan dago Irune Soto Cotorro udal Kontuhartzailea.

- Elixabete MURUA MINDEGUIA

- Jaione FRANCO INSAUSTI

- Luis María OYARBIDE ARIZMENDI

***ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde***

- Yolanda MARTIN MARCOS

- Maite GARTZIA ONTIVEROS

***PP ERRENTERIA***

- Antonio José VICENTE ZUBICOA

Asiste y da fe del Acto la Secretaria general Ainhoa Esnaola Zubeldia.

Igualmente asiste la Interventora Municipal Irune Soto Cotorro.

**1. 2023ko abenduaren 20ko ohiko bilkurari dagokion akta irakurri, eta egoki bada, onartzea. (2023IUBA0015)**

Oharrik gabe onartu da.

**2. Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatetzarenak eta Zinegotzi-ordezkarienak, 2023ko 3075 zk.tik 3283 zk.ra, (biak barne) eta 2024ko 1 zk.tik 119 zk.ra (biak barne), Tokiko Gobernu Batzordearenak.**

Udalbatza jakinaren gainean deratu da.

**3. Proposamena: Udal ordezkaritza bat gehitzea Aiako Harria Natura Gunean, ordezko bokalaren izendapena. (2023IOBE0001)**

2023ko maiatzaren 28ko udal hauteskundeak egin

**1. Lectura y aprobación en su caso del acta correspondiente a la sesión ordinaria del 20 de diciembre de 2023. (2023IUBA0015)**

Se aprueba sin observación alguna.

**2. Dar cuenta de Resoluciones de la Alcaldesa y de Concejales Delegados nºs 3075 al 3283 (ambos incluidos, correspondientes a 2023), y nºs 1 al 119 (ambos incluidos, correspondientes a 2024), y de la Junta de Gobierno Local.**

El Pleno queda enterado.

**3. Propuesta: adicionar el nombramiento de una representante municipal más en el Parque Natural de Aiako Harria, nombramiento de vocal suplente. (2023IOBE0001)**

Tras las elecciones locales de 28 de mayo de 2023 y

ESKU883fa516-e3bd-4943-80d8-3b5e0f0ce35a

ondoren eta Udal Korporazio berria 2023ko ekainaren 17an eratu ostean, 2023ko ekainaren 26ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez Udalaz gaindiko erakundeetan Udal ordezkariak izendatu ziren.

Udalaz gaindiko erakunde horietatik, Aiako Harria Nagura Guneari dagokionez, kide bakarra izendatu zen, ordezkorik gabe.

Alkatetzaren proposamenez, beharrezkotzat jo da bokal titularraz gain, ordezko bat izendatzea, titularrak aipatu Patronatuko bilkuretara joan ezin duenean berau ordezkatzeko.

Alkatetzak egindako erabaki-proposamena eta idazkari orokorrak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita, betiere Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Erregelamenduaren 38.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onarturikoa, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Tokiko Araubide Oinarriak arautzen duenaren 22.2.b) artikuluarekin ere bat eginez eta maiatzaren 4ko 46/1999 Foru Dekretua, Aiako Harriko Parke Naturala Administratzeari buruzkoak bere 2.3 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

2024ko urtarrilaren 24an, alkateak proposatuta, Antolaketa Batzordeak gai honen aldeko irizpena eman zuen.

Udalbatzak, aldeko 11 botoren gehiengoarekin (ORERETA/ ERRENTERIAKO EH BILDU, ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde), eta 10 abstenziorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ-PNV eta PP ERRENTERIA).

**ERABAKI DU**

**Lehena.** 2023ko ekainaren 26ko udalbatzako akordio bidez Aiako Harria Natura Gunerako bokal

constituida la nueva corporación en sesión plenaria del 17 de junio de 2023, mediante el acuerdo plenario de fecha 26 de junio de 2023, se procedió al nombramiento de las y los representantes de la Corporación ante entidades supramunicipales.

De entre estas entidades supramunicipales respecto del Parque Natural Aiako Harria se nombró solo a un vocal, no así al vocal suplente.

A propuesta de la Alcaldía se ha considerado necesario nombrar vocal suplente para que otra persona asista a las sesiones del Patronato cuando el titular no pueda acudir a las mismas.

Vista la propuesta de acuerdo de la Alcaldía, y la conformidad dada por la secretaria general a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente, de acuerdo con lo dispuesto por el artículo 38c) del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, en concordancia con lo dispuesto en el artículo 22.2.b) de la Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local y el artículo 2.3 del Decreto Foral 46/1999, de 4 de mayo, sobre administración del Parque Natural de Aiako Harria.

Visto que en fecha 24 de enero de 2024, a propuesta de la Alcaldesa, la Comisión de Organización dictamina favorablemente el presente asunto.

El Pleno de la Corporación, por mayoría, con 11 votos a favor (ORERETA/ ERRENTERIAKO EH BILDU, ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde) y 10 abstenciones (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ-PNV y PP ERRENTERIA).

**ACUERDA**

**Primero.** Adicionar al acuerdo plenario de fecha de 26 de junio de 2023, por el que se nombró la vocal

ESKU883fa516-e3bd-4943-80d8-3b5e0f0ce35a

titularraren izendapenari (Leire Mazizior Egilegor), ordezko bokalaren izendapena gehitzea (Yolanda Martín Marcos), eta beraz, Errenteriako Udalaren ordezkaritzak, modu honetan izendatu geldituko lirateke:

titular (Leire Mazizior Egilegor) para el Parque Natural Aiako Harria, la designación de una vocal suplente (Yolanda Martín Marcos). Por tanto, las representaciones del Ayuntamiento de Errenteria quedarán designadas de la siguiente manera:

| **UDALAZ GAINDIKO ERAKUNDEA**<br>ENTIDAD SUPRAMUNICIPAL | **BOKALA**<br>VOCAL | **VOCAL SUPLENTE**<br>ORDEZKO BOKALA |
|---|---|---|
| **Aiako Harria Natura Gunea**<br>Parque natural de Aiako Harria | Leire Mazizior Egilegor | Yolanda Martín Marcos |

**Bigarren.** Erabaki honen berri ematea, bidezko ondorioetarako, interesdunei, Aiako Harria Natura Guneko Patronatuari eta udal sail/departamentuei.

**Segundo.** Notificar el presente acuerdo a las personas interesadas, al Patronato del Parque Natural de Aiako Harria y a las áreas/departamentos municipales para su conocimiento y efectos.

**Hirugarren.** 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoan eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoan xedatutakoa betetzea akordio honetan adierazitakoei buruz publikotasun aktiboari dagokionean.

**Tercero.** Dar cumplimiento a lo dispuesto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno y en la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, en lo que se refiere a la publicidad activa de los aspectos regulados por este acuerdo.

**4. Proposamena: akatsen zuzenketa, 2024ko ordenantza fiskalen 1. Aldaketari (2024SOFF0001)**

**4. Propuesta: Corrección de errores, 1ª modificacion de Ordenanzas Fiscales del año 2024 (2024SOFF0001).**

2024ko ordenantza fiskalen 1. aldaketa 2023ko urriaren 31ko osoko bilkuran onartu zen hasieran. Aldaketaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 249. zenbakian argitaratu zen, 2023ko abenduaren 29an. (Aldaketa orokorra)

La 1ª Modificación de Ordenanzas fiscales del año 2024, se aprobó inicialmente en sesión plenaria celebrada el 31 de octubre de 2023. El texto integro de la Modificación se publlicó en el Boletin Oficial de Gipuzkoa n.º 249, de fecha 29 de diciembre de 2023. (Modificación General)

ESKU883fa516-e3bd-4943-80d8-3b5e0f0ce35a

Akatsak antzeman dira 2024rako ordenantza fiskalei hasierako onarpena emateko proposamenaren eranskinean.

Se han detectado errores en el texto del anexo de la propuesta de aprobación inicial de las Ordenanzas Fiscales para el año 2024.

Espedientean diruzainaren eta aholkulari juridikoaren baterako txostena dago. Bertan, berariaz adierazten dira antzemandako akatsak, eta adierazten da administrazio-espedientetik bertatik ondorioztatzen den akatsa dela; izan ere, tarifen eguneratzea denez, argi dago zein den onartutako igoera eta zein dagozkion tarifak, eta agerikoa da transkripzio-akats bat dela.

En el expediente consta informe conjunto de la Tesorera y de la Asesora Jurídica, indicando de forma expresa los errores detectados y señalando que se trata de un error que se deduce del propio expediente administrativo puesto que al tratarse de una actualización de tarifas resulta claro cual es el incremento aprobado y las tarifas que corresponde, resultando ser evidente que se trata de un error de transcripción.

**ZUZENBIDE OINARRIAK**

**LEGISLACIÓN APLICABLE**

- 2/2005 Foru Araua, martxoaren 8koa, Zergen Foru Arau Orokorra arautzen duena.

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.

- 2/2005 Foru Araua, martxoaren 8koa, Zergen Foru Arau Orokorra arautzen duena.

- Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

- Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases de Régimen Local

- Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Ogasuneko zinegotzi delegatuak egindako erabaki proposamena eta diruzainak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita,

Vista la propuesta de acuerdo del Delegado de Hacienda, y la conformidad dada por la Tesorera a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente,

2024ko urtarrilaren 24an, Ogasun Arloko zinegotzi ordezkariak proposatuta, Antolaketa Batzordeak gai honen aldeko irizpena eman zuen.

Visto que en fecha 24 de enero de 2024, a propuesta del concejal delegado del Área de Hacienda, la Comisión de Organización dictamina favorablemente el presente asunto.

Udalbatzak, aldeko 11 botoren gehiengoarekin (ORERETA/ ERRENTERIAKO EH BILDU, ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde), eta 10 abstenziorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ-PNV eta PP ERRENTERIA).

El Pleno de la Corporación, por mayoría, con 11 votos a favor (ORERETA/ ERRENTERIAKO EH BILDU, ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde) y 10 abstenciones (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ-PNV y PP ERRENTERIA).

**ERABAKI DU**

**ACUERDA**

ESKU883fa516-e3bd-4943-80d8-3b5e0f0ce35a

1.- Zuzentzea Trakzio Mekanikoko ordenantza Fiskalaren eranskina, 2023ko abenduaren 29an 249 zb.ko GAOn argitaratua zena. Beraz,

1.- Rectificar el anexo correspondiente a la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 249 de fecha 29 de diciembre. De tal forma que:

Hau dioen tokian

Donde dice

ERANSKINA

(...)

ANEXO

(...)

| F) Bestelako ibilgailuak | € | F) Otros vehículos | € |
|---|---|---|---|
| Ziklomotorrak | 44,89 | Ciclomotores | 11,39 |
| 125 cc-tik beherako motorrak | 85,29 | Motocicletas hasta 125 cc | 11,41 |
| 125 eta 250 cc bitarteko motorrak | 157,23 | Motocicletas de más de 125 hasta 250 cc. | 19,58 |
| 250 eta 500 cc bitarteko motorrak | 199,25 | Motocicletas de más de 250 hasta 500 cc. | 39,58 |
| 500 eta 1.000 cc bitarteko motorrak | 298,43 | Motocicletas de más de 500 hasta 1.000 cc | 82,25 |
| 1.000 cc-tik gorako motorrak | 377,58 | Motocicletas de más de 1.000 cc | 168,27 |

Hau esan behar du:

(...)

Debe decir:

(...)

| F) Bestelako ibilgailuak | € | F) Otros vehículos | € |
|---|---|---|---|
| Ziklomotorrak | 11,39 | Ciclomotores | 11,39 |
| 125 cc-tik beherako motorrak | 11,41 | Motocicletas hasta 125 cc | 11,41 |
| 125 eta 250 cc bitarteko motorrak | 19,58 | Motocicletas de más de 125 hasta 250 cc | 19,58 |
| 250 eta 500 cc bitarteko motorrak | 39,58 | Motocicletas de más de 250 hasta 500 cc. | 39,58 |
| 500 eta 1.000 cc bitarteko motorrak | 82,25 | Motocicletas de más de 500 hasta 1.000 cc. | 82,25 |
| 1.000 cc-tik gorako motorrak | 168,27 | Motocicletas de más de 1.000 cc | 168,27 |
| | | | |

1.- Zuzentzea, bide publikoan abandonatu edo aparkatutako ibilgailuak erretiratzearen tasa erregulatzen duen ordenantza fiskala, 2023ko abenduaren 29an 249 zb.ko GAOn argitaratua zena.

2 .- Rectificar la Ordenanza Fiscal reguladora de la tasa de retirada de vehículos abandonados o estacionados en la vía pública publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de n.º 249, de fecha 29

ESKU883fa516-e3bd-4943-80d8-3b5e0f0ce35a

Eta, honela geratuko da: de diciembre

Hau dioen tokian: Donde dice:

(...) (...)

| | | | |
|---|---|---|---|
| 6.- Tona gordina 3.000 eta 7.500 Kg. Tona gordina bitarteko kamioiak. | | 6.- Camiones con tonelaje superior a 3000 Kg hasta 7500 Kg. | |
| (1) Zerbitzuaren kostuaren arabera. | | (1) Según coste del servicio. | |
| (2) | 44,62 | (2) | 43,49 |
| (3.1) | 206,87 | (3.1) | 201,63 |
| (3.2) | 41,47 | (3.2) | 40,42 |
| (3.3) Erretiratzearen %50 | - | (3.3) 50% de retirada | - |
| 7.- 7.500 Kg-tik gorako auto eta kamioiak | - | 7.- Autocares y camiones de más de 7500 Kg. | - |
| (1) Zerbitzuaren kostuaren arabera. | - | (1) Según coste del servicio. | - |
| (2) | 44,62 | (2) | 43,49 |
| (3.1) | 249,41 | (3.1) | 243,09 |
| (3.2) | 41,47 | (3.2) | 40,42 |
| (3.3) Erretiratzearen %50 | - | (3.3) 50% de retirada | - |
| 8.- Gainontzeko ibilgailu abandonatuak. | - | 8.- Resto de vehículos abandonados. | - |
| (1) | 59,73 | (1) | 58,22 |
| (2) | 14,96 | (2) | 14,59 |
| (3.1) | 69,03 | (3.1) | 67,28 |
| (3.2) | 20,83 | (3.2) | 20,30 |
| (3.3) | 29,87 | (3.3) | 29,11 |

Hau esan behar du: Debe decir:

| | |
|---|---|
| 6.- Tona gordina 3.000 eta 7.500 Kg. Tona gordina bitarteko kamioiak. | 6.- Camiones con tonelaje superior a 3000 Kg hasta 7500 Kg. |

ESKU883fa516-e3bd-4943-80d8-3b5e0f0ce35a

| | | | |
|---|---|---|---|
| (1) Zerbitzuaren kostuaren arabera | | (1) Según coste del servicio. | |
| (2) | 44,62 | (2) | 44,62 |
| (3.1) | 206,87 | (3.1) | 206,87 |
| (3.2) | 41,47 | (3.2) | 41,47 |
| (3.3) Erretiratzearen %50 | - | (3.3) 50% de retirada | - |
| 7.- 7.500 Kg-tik gorako auto eta kamioiak | - | 7.- Autocares y camiones de más de 7500 Kg. | - |
| (1) Zerbitzuaren kostuaren arabera. | - | (1) Según coste del servicio. | - |
| (2) | 44,62 | (2) | 44,62 |
| (3.1) | 249,41 | (3.1) | 249,41 |
| (3.2) | 41,47 | (3.2) | 41,47 |
| (3.3) Erretiratzearen %50 | | (3.3) 50% de retirada | - |
| 8.- Gainontzeko ibilgailu abandonatuak | - | 8.- Resto de vehículos abandonados. | - |
| (1) | 59,73 | (1) | 59,73 |
| (2) | 14,96 | (2) | 14,96 |
| (3.1) | 69,03 | (3.1) | 69,03 |
| (3.2) | 20,83 | (3.2) | 20,83 |
| (3.3) | 29,87 | (3.3) | 29,87 |

3.- Akats zuzenketa denez, bidezkoa da aplikatzea 2024ko Ordenantza Fiskalen Aldaketaren behin-betiko onarpena indarrean sartu zen datatik (2024-01-01).

3.- Al tratarse de una rectificación de errores procede la aplicación desde la fecha de entrada en vigor de la aprobación definitiva de la Modificación de Ordenanzas fiscales de 2024.(01-01-2024)

4.- Zuzenketa honen irargarkia, Udalaren iragarki oholean, web orrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4.- Publicar el anuncio de dicha rectificación en el Tablón de Edictos, la web municipal y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa

**5. Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak Udal Taldeak aurkeztutako mozioa, nerabeen artean**

**5. Moción presentada por el Grupo Municipal Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak sobre el**

ESKU883fa516-e3bd-4943-80d8-3b5e0f0ce35a

**teknologia berriak erabiltzeari buruzkoa. (2023IMOZ0012)**

Ondoko mozioa irakurri dute:

Duela aste batzuk jakin zen bazirela bi Whatsapp talde, Donostia, Irun, Errenteria eta Lasarte-Oriako milatik gora nerabe kide zituztenak; talde horietan, eduki pornografikoa eta iruzkin iraingarriak partekatzen ziren, baita aldarri frankistak ere.

Gaur egun, gero eta haur txikiagoek dute mugikorra, eta, beraz, funtsezkoa iruditzen zaigu halako gertaerei modu integral eta koordinatuan erantzutea, hezkuntza-erakundeek eta erakunde publikoek elkar hartuta, nerabeentzako ingurune seguruagoa eta osasungarriagoa sortzen laguntzeko.

Egoeraren munta eta gertakarien larria ikusita, eta kontuan hartuta WhatsApp talde horietan Errenteriako nerabeak ere badabiltzala, Errenteriako Udaleko Udal Talde Sozialistak honako MOZIO hau aurkeztu du osoko bilkuran eztabaidatzeko.

Errenteriako Udaleko Udalbatzarrak kezka handia adierazten du WhatsApp mezularitza plataforman badirelako bi foro, milatik gora nerabe kide dituztenak, eta, tartean, baita gure herriko gaztetxo batzuk ere. Eremu digital horiek eduki pornografikoa partekatzeko eta iruzkin iraingarriak hedatzeko erabili dira.

Errenteriako Udaleko Udalbatzarrak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eskatzen dio har ditzala berehalako neurri eraginkorrak nerabeen osotasunari eta ongizateari zuzenean eragiten dion problematika horri aurre egiteko.

**uso de las nuevas tecnologías entre los y las adolescentes. (2023IMOZ0012)**

Leída la siguiente moción:

Hace unas semanas fue noticia la existencia de dos grupos en WhatsApp con más de mil adolescentes de San Sebastián, Irun, Errenteria y Lasarte-Oria en los que se compartía contenido pornográfico y comentarios vejatorios, además de proclamas franquistas.

En la actualidad, hay niñas y niños cada vez más jóvenes que tienen un móvil y, por lo tanto, consideramos fundamental que ante estos hechos la respuesta se ofrezca de una manera integral y coordinada entre las entidades educativas e instituciones públicas para contribuir a crear un entorno más seguro y saludable para las y los adolescentes.

Frente a la magnitud de esta situación y la gravedad de los hechos, y teniendo en cuenta la participación de adolescentes de Errenteria en estos grupos de WhatApp; el Grupo Municipal Socialista del Ayuntamiento de Errenteria presenta la siguiente MOCIÓN para su debate en el pleno.

El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria expresa su profunda preocupación ante la existencia de dos foros en la plataforma de mensajería WhatsApp, con la participación de más de mil adolescentes, entre los cuales se incluyen jóvenes de nuestra localidad. Estos espacios digitales han sido utilizados para compartir contenido pornográfico y difundir comentarios vejatorios.

El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria insta a la Consejería de Educación del Gobierno Vasco a tomar medidas inmediatas y efectivas para abordar esta problemática que afecta directamente a la integridad y bienestar de los y las adolescentes.

ESKU883fa516-e3bd-4943-80d8-3b5e0f0ce35a

Errenteriako Udaleko Udalbatzarrak Udal Gobernuari eskatzen dio jar ditzala ikastetxeen, gurasoen eta nerabeen eskura egoera horri aurre egiteko behar diren baliabide guztiak. Funtsezkoa da prebentzio- eta zuzenketa-neurriak hartzea, epe laburrera zein luzera, modu koordinatuan eta eraginkorrean.

El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria solicita al Gobierno Municipal que ponga a disposición de los colegios, padres y madres, así como de los propios adolescentes, todos los recursos necesarios para combatir esta situación. Es fundamental adoptar medidas preventivas y correctivas tanto a corto como a largo plazo de manera coordinada y eficaz.

Errenteriako Udaleko Udalbatzarrak Udal Gobernuari eskatzen dio abian jar ditzala sare sozialen erabilera arduratsuari buruzko hezkuntza-programak, pornografiak duen eragina aztertu eta familiek nerabeen sexu-hezkuntzan duten zeregina indartzeko, errespetuaren eta tolerantziaren garrantzia azpimarratzeko, bai eta eduki desegokia partekatzeak dituen arriskuen inguruan kontzientziatzeko ere. Programa horiek hiru publiko motari begira egin litezke: nerabeak, gurasoak eta hezkuntza-komunitatea bera.

El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria insta al Gobierno Municipal a poner en marcha programas educativos que aborden el uso responsable de las redes sociales, que analicen el impacto de la pornografía y refuercen el papel de las familias en la educación sexual adolescente, la importancia del respeto y la tolerancia, así como la concienciación sobre los peligros de compartir contenido inapropiado. Estos programas podrían ser enfocados a tres públicos: adolescente, padres y madres y la propia comunidad educativa.

Errenteriako Udaleko Udalbatzarrak Udal Gobernuari eskatzen dio abian jar dezala estrategia integral bat, komunitatea, hezitzaileak, gurasoak eta adingabeak barne hartuko dituena, giro digital segurua eta errespetuzkoa sustatzeko helburuarekin. Horren harira, honako hauek egin litezke, besteak beste: eskolako programetan hezkuntza digitala sartu, pornografiak duen eragina aztertu eta familiek nerabeen sexu-hezkuntzan duten zeregina indartu, jendea kontzientziatzeko kanpainak egin, eta txikitatik sustatu sare sozialen erabilera arduratsua.

El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria insta al Gobierno Municipal a poner en marcha una estrategia integral que involucre a la comunidad, educadores, padres y madres y los propios menores con el objetivo de fomentar un ambiente digital seguro y respetuoso. Esto podría incluir la incorporación de la educación digital en los programas escolares, analizar el impacto de la pornografía y reforzar el papel de las familias en la educación sexual adolescente, campañas de concienciación pública y la promoción de un uso responsable de las redes sociales desde edades tempranas.

Errenteriako Udaleko Udalbatzarrak Udal Gobernuari eskatzen dio eraman dezala gai hori hurrengo Udal Eskola Kontseilura, hartara, arazo horri heltzeko neurriak hezkuntza-komunitatearekin eta gainerako talde politikoekin koordinatuta har daitezen.

El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria insta al Gobierno Municipal a llevar este tema al siguiente Consejo Escolar Municipal para coordinar con la comunidad educativa y el resto de Grupos Políticos las medidas para abordar esta problemática.

Errenteriako Udaleko Udalbatzarrak Udal Gobernuari eskatzen dio gainerako erakundeekin lankidetzan aritu dadila arazo horri erantzun integrala emateko.

El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria insta al Gobierno Municipal a colaborar con el resto de instituciones para dar una respuesta integral a esta

ESKU883fa516-e3bd-4943-80d8-3b5e0f0ce35a

problemática.

Udalbatzak, aldeko 21 botorekin (ORERETA/ ERRENTERIAKO EH BILDU, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ-PNV, ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde y PP ERRENTERIA), aho batez

**ERABAKI DU**

Onartzea Udal talde Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak aurkeztutako mozioa, nerabeen artean teknologia berriak erabiltzeari buruzkoa (erabaki honen azalpen zatian jasota dago).

El Pleno de la Corporación, por unanimidad, con 21 votos a favor (ORERETA/ ERRENTERIAKO EH BILDU, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ-PNV, ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde y PP ERRENTERIA),

**ACUERDA**

Aprobar la moción presentada por el Grupo Municipal Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak sobre sobre el uso de las nuevas tecnologías entre los y las adolescentes que consta en la parte expositiva del presente acuerdo.

**6. Auzokideen elkarteek aurkeztutako mozioa ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde udal taldeak sinatuta, Beraun eta Iztietako anbulatorietan lehen mailako arreta defendatzeari buruzkoa. (2023IMOZ0015)**

Duintasuna pentsiodunen mugimenduaren mozioa aurkeztu du Marian Gutierrezek

Abenduaren 16an, larunbatean, manifestazio jendetsua egin genuen auzo elkarteek (Beraun, Galtzaraborda, Kaputxinoak, Iantzi, Zamalbide, Alaberga, Oiarso Erdigunea, Iztieta, Gaztaño, Gabierrota eta Agustinak), mugimendu feministarekin, Bilgune Feministarekin eta Duintasuna pentsiodunen elkartearekin batera. Helburu argia genuen: **gure herrian, Errenterian, lehen mailako osasun arreta defendatzea**. Zehazki, Beraungo eta Iztietako gure anbulatorioak defendatzea, azpimarra Iztietako anbulatorioan jarriz, egun bizi duen egoera guztiz larria baita.

Herri honetako biztanleok ezin genuen imajinatu ere egin zer gaineratu behar zitzaigun gure anbulatorioko lehen arretan eta larrialdi zerbitzuan. Baina, zoritxarrez, zuzenean egiaztatzen dugu zer gertatzen den gure familia medikuarengana goazenetan, dela

**6. Moción presentada por diferentes asociaciones de vecinos y suscrita por ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde para defender la atención primaria en los ambulatorios de Beraun e Iztieta. (2023IMOZ0015)**

Presenta la moción Marian Gutierrez integrante del movimiento de pensionistas Duinasuna.

El sábado día 16 de diciembre, las AAVV ( Beraun, Galtzaraborda, Kaputxinos, Iantzi, Zamalbide, Alaberga, Oiarso Centro, Iztieta, Gaztaño, Gabierrota y Agustinas) junto al Movimiento Feminista, Bilgune Feminista y el Movimiento de Pensionistas (Duintasuna) realizamos una manifestación multitudinaria con un claro objetivo, **defender la atención Primaria en nuestro pueblo, Errenteria.** Concretamente nuestros ambulatorios de Beraun e Iztieta. Poniendo especial énfasis en la situación del Ambulatorio de Iztieta, ya que su situación actual es de máxima gravedad.

Los vecinos/as de este pueblo no podíamos imaginar la que se nos venía encima en cuanto a la atención primaria y al Servicio de Urgencias de nuestro Ambulatorio. Pero por desgracia es algo que constatamos en primera persona cuando, por necesidad propia o porque

ESKU883fa516-e3bd-4943-80d8-3b5e0f0ce35a

guk geuk beharra dugulako edo dela adinekoei, seme-alabei edo besteren bati laguntzeko.

Iztietako anbulatorioaren egoeraren diagnostikoa **ezin larriagoa da. Ez da ordezko langilerik jartzen erretiroetan eta gaixotasun bajetan.**

Hona hemen anbulatorioaren egungo erradiografia: dagozkigun 16 medikuetatik, 2 erretiroa hartuta daude, eta beste 5 mediku bajan. Ondorioz, gainerako medikuek lan presio izugarria jasan behar dute, eta ondotxo dakigu denok zer-nolako ondorio zuzenak dakarzkigun horrek herritarroi: lehen diagnostikorako telefono bidezko hitzorduak asko atzeratzen dira, aurrez aurreko hitzorduak zer esanik ez, eta abar eta abar.

Bestalde, erizaintza zerbitzua osorik dago, hori bai, errefortzurik gabe, baina administrariak gaindituta daude, eta ezin diete telefono deiei behar bezala erantzun; horrek estresa eta estuasuna eragiten die, sentitzen baitute ez direla arretarik ematen ari, edo arreta oso eskasa ematen ari direla.

Kontuan izan behar dugu, gainera, Iztietako anbulatorioko larrialdi zerbitzu horrek Oarsoaldeko herritarrak artatzen dituela (Oiartzun, Lezo, Pasaia eta Errenteriakoak, alegia), hau da, 65.000 herritar inguru denera.

Asteburuetako larrialdi zerbitzuaren egoera, Aste Santutik aurrerakoa zehazki, lotsagarria da, gorri-gorri egiteko modukoa, eta zentzugabekeria galanta. Larrialdi zerbitzu horretara joatea loteria hutsa da: egun batzuetan, oso gutxitan, zorte handia baduzu, mediku batek artatuko zaitu. Beste egun batzuetan, berriz, gehienetan, ez dago artatuko gaituen sendagile bakar bat ere osasun zaintza bila goazenean. Kolapso egoera horren ondorioz osasun arloko profesionalik ez, eta Donostiako larrialdi zerbitzura jo behar izaten dugu. Hura ere, gehienetan, zer eta kolapsatuta.

acompañando a nuestros/as mayores, hijos, hijas… vemos lo que ocurre cuando acudimos a una cita con nuestro médico/a de cabecera.

El diagnóstico de la situación en el que se encuentra el ambulatorio de iztieta **es gravísima. No se cubren las jubilaciones ni las bajas por enfermedad.**

Su radiografía actual es la siguiente. De los 16 médicos/as que nos corresponden, 2 se han jubilado y 5 médicos/as están de baja médica. Provocando así que el resto de médicos/as soporten una presión laboral terrible con consecuencias directas en los vecinos/as que todos/as conocemos: las citas telefónicas para un primer diagnóstico se alargan mucho en el tiempo, las citas presenciales no digamos, y así un largo etc.

Y aunque si bien, el servicio de enfermería está completo pero sin refuerzos, las administrativas/os no pueden atender el teléfono en condiciones, llevándoles esto a una situación de estrés y agobio provocadas por una sensación de desatención y de atención muy precaria debido a que están sobrepasados.

Tengamos también en cuenta que este servicio de urgencias del ambulatorio de iztieta atiende a los vecinos/as de Oarsoaldea ( Oiartzun, Lezo, Pasaia y Errenteria), un total de población aproximadamente de 65.000 habitantes.

La situación de los últimos meses, más concretamente desde Semana Santa, el Servicio de Urgencias de fin de semana es una vergüenza de sonrojo absoluto y de un auténtico despropósito. Acudir a este servicio de urgencias es una lotería: hay días, los menos en los que si la suerte te acompaña, te atiende una médica/a. Y otros, los más, en los que no hay ninguno par atendernos cuando acudimos demandando cuidados de salud. Situación que fruto del colapso nos obliga a acudir, debido a la falta de profesionales de la salud, al Servicio de Urgencias de Donostia. Servicio que las más de las veces suele estar colapsado.

ESKU883fa516-e3bd-4943-80d8-3b5e0f0ce35a

Atsekabez diogu, baina horixe dugu **GURE LEHEN MAILAKO ARRETAREN ERREALITATE TAMALGARRIA.**

Nolanahi ere, jakin badakigu nolako ahalegina egiten duten gure mediku, erizain, administrari eta osasun arloko langileek. Are gehiago, gu artatzearren haien atseden denboraren zati bat ere galtzen dute askotan.

Aitortu eta balioetsi nahi dugu zer-nolako ahalegina egiten duten, zer-nolako konpromisoa erakusten, haien lanbidearekiko, eta hartara, artatzen dituzten pertsonekiko, hots, gurekiko.

Erabateko babesa eta aintzatespena adierazteko eta emateko baliatu dugun indar horrekin berarekin, ahotsa goratzen dugu aldrebeskeria horrentzat **berehalako konponbideak** jar daitezen exijitzeko.

Ez dugu ahaztu behar profesional horiek zaintzen gaituztela jaiotzen garenetik gure azken egunera arte.

Osasun publikoko langileek eta, oro har, Errenteriako herrikideek elkar hartuta borroka egin behar dugu, Osakidetzan, eta, bereziki, Iztietan, gertatzen ari den desmasia iraultzeko. Ez da onargarria, inola ere, gure herriko lehen mailako arretan gertatzen ari dena.

Badugu beste kezka bat ere, nahita eragindako noraez interesatu horren ondorioetako bat baita are gehiago handitzen ari dela gizarte arrakala osasunaren eta osasungintza publikoaren arloan, eta halakorik ere ezin dugu onartu. Lehen eta bigarren mailako herritarrak egotea. Dirua daukanak osasungintza pribatura jotzeko aukera izatea, eta gainerako herritarrak, berriz, osasungintza murriztu horren kondarrekin moldatu behar izatea. Ez dugu nahi halako **osasungintza publiko-pribaturik**. Osasunaren eta zainketen kudeaketak erabat aparte egon behar du negozio asmoetatik, eta ezin du

Lo decimos con pensar, pero esta es la **LAMENTABLE REALIDAD DE NUESTRA ATENCIÓN PRIMARIA.**

No obstante, también somos conscientes del esfuerzo de nuestros médicos/as, enfermeras/os y administrativos/as, y trabajadores y trabajadoras de la salud. Llegando incluso, para poder atendernos, a hipotecar parte de su propio tiempo libre.

Queremos reconocer y poner en valor el esfuerzo y compromiso para su profesión y por ende para con las personas a las que nos atienden, o sea, con nosotras y nosotros.

Con la misma intensidad con la que expresamos y les extendemos nuestro total apoyo y reconocimiento, hacemos lo propio para elevar la voz en la exigencia de **soluciones inmediatas** a este desmán.

No debemos olvidar que estos y estas profesionales nos cuidan desde el momento que nacemos como hasta el del final de nuestros días.

Las trabajadoras y trabajadores de la salud pública y el pueblo de Errenteria en general, juntas/os tenemos que luchar para dar la vuelta al despropósito que se está produciendo en Osakidetza en general y en Iztieta en particular. No es en absoluto de recibo lo que está ocurriendo en la atención primaria de nuestro pueblo.

Otra de las preocupaciones y de las consecuencias que está teniendo esto, ante esta deriva provocada e interesada, y que tampoco debiéramos permitir, es que se agrande aún más la brecha social en cuanto a la Salud y la Sanidad Pública. Que haya ciudadanos/as de primera y segunda categoría. Que quien tenga dinero se pueda permitir ir a la Sanidad Privada y por contra el resto de la población a los que quede de una Sanidad mermada y recortada. No queremos este tipo de **Sanidad-Pública-Privada.** La gestión de la salud y de los cuidados debe estar totalmente alejada de la idea de negocio y mucho menos asociada a la incompetencia y la falta de previ-

ESKU883fa516-e3bd-4943-80d8-3b5e0f0ce35a

zerikusirik izan gaitasunik ezarekin eta propio egindako aurreikuspen faltarekin.

**Beste ezeren gainetik dago osasuna, eta horregatik uste dugu Errenteria/Oreretako herritar guztiek bermatua behar dutela lehen mailako arreta publikoa eta kalitatezkoa. Hori dela eta, mozio hau aurkezten dugu:**

1.- Iztietako anbulatorioan gertatzen ari den egoera larria dela eta, Errenteriako Udalak adierazi eta bere egiten du Iztietako anbulatorioko lehen mailako arretan eta EAGn (urgentziazko Etengabeko Arreta Zerbitzua) gertatzen ari denari buruzko kezka.

2.- Errenteriako Udalak, osasun sistema publikoaren defentsan, gai honetan inplikatutako gizarte eragileekin elkarlanean jarduteko eta bidelagun izateko borondatea eta konpromisoa adierazten du.

3.- Errenteriako Udalak babesa eta elkartasuna adierazten die hain egoera zailean, eta batzuetan modu altruistan, gure herrikideei arreta emateko konpromiso eta profesionaltasun erakustaldia egiten ari diren osasun arloko langile guztiei,

4.- Errenteriako Udalak dagokien pertsonei, erakundeei eta sailei eskatzen die berehala har ditzatela arretarik eza hori konpontzeko behar diren neurriak, Iztietako anbulatorioan kalitatezko zerbitzua bermatzeko.

5.- Errenteriako Udalak konpromisoa hartzen du arazo hau konpontzen lagun dezaketen kudeaketak egiteko, bai eta mozio honetan hartutako erabakiak Eusko Jaurlaritzari eta Osasun sailburuari bidaltzeko ere.

sión deliberada.

**Consideramos que porque la Salud es lo primero, toda la ciudadanía de Errenteria/Orereta debe tener garantizada una atención primaria pública y de calidad. Por ello presentamos la siguiente moción para su acuerdo:**

1.- Ante la grave situación que se está dando en el ambulatorio de Iztieta, el Ayuntamiento de Errenteria manifiesta y hace suya esa preocupación respecto a los que está ocurriendo en la atención primaria y en el PAC, servicio de urgencias en el ambulatorio de Iztieta.

2.- El Ayuntmiento de Errenteria, en la defensa del sistema sanitario público, muestra su voluntad y compromiso para colaborar y ser compañeros/as de viaje de los agentes sociales implicados en esta cuestión.

3.- El Ayuntamiento de Errenteria muestra su apoyo y solidaridad a todo el personal sanitario que en una situación tan adversa, y en ocasiones altruista, están dando una lección de compromiso y profesionalidad en la atención a nuestras vecinas y vecinos.

4.- El Ayuntamiento de Errenteria insta a las personas, instituciones, departamentos correspondientes a adoptar de modo inmediato las medidas oportunas que reviertan esta situación de desatención para que se garantice un servicio de calidad en el ambulatorio de iztieta.

5.- El Ayuntamiento de Errenteria se compromete a realizar las gestiones oportunas que puedan contribuir en la solución de este problema, así como al envío de los acuerdos adoptados en esta moción, tanto al Gobierno Vasco como a la Consejera de Sanidad.

ESKU883fa516-e3bd-4943-80d8-3b5e0f0ce35a

Udalbatzak, aldeko 18 botoren gehiengoarekin (ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde, y PP ERRENTERIA) eta 3 abstentzioarekin (EAJ-PNV),

El Pleno de la Corporación por mayoría de 18 votos a favor (ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde, y PP ERRENTERIA), y 3 abstenciones (EAJ-PNV),

**ERABAKI DU**

**ACUERDA**

Onartzea Elkarte desberdinak aurkeztutako mozioa, eta ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde udal taldeak sinatuta Beraun eta Iztietako anbulatorioetan lehen mailako arreta defendatzeari buruzkoa (erabaki honen azalpen zatian jasota dago).

Aprobar la moción presentada por diferentes asociaciones y suscrita por ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde para defender la atención primaria en los ambulatorios de Beraun e Iztieta y que consta en la parte expositiva del presente acuerdo.

**7. Galdera-eskariak.**

**7. Ruegos y preguntas.**

Hainbat pertsonak parte hartzen dute.

Se producen por parte del público presente diferentes intervenciones.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 19:52ak zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut. Idazkari orokorrak.

Y sin más asuntos de los que tratar, la presidenta levanta la sesión, siendo las 19:52 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente acta. La secretaria general.

Errenteria, 2024ko urtarrilaren 30a

Errenteria, 30 de enero de 2024

Idazkari orokorra / Secretaria general

Ainhoa Esnaola Zubeldia

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU883fa516-e3bd-4943-80d8-3b5e0f0ce35a**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710*
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710*

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2024IUBA0001-AKTA/ACTA (ERRENTERIAKO UDALA) |
| --- | --- |

Sinatzailea 1 / Firmante 1: AINHOA ESNAOLA ZUBELDIA - 72522979T
Data / Fecha: 2024/02/01 12:20:48